

ZURA ETA IURA

Konrado Mugertza

Antolatzaileak / Organizan



ITSAS MUSEUM
BILBAO

Patrocinadores / Babesleak



Bizkaia



ZURA ETA URA argazki eta literatura proiektuaren inaugurazioa

- **Artea, literatura, tradizioa eta nortasuna lotzen dituen proiektua**
- **Portuko paisaien eraldaketari eta honek dakarren ondorioei buruzko gogoeta artistikoa**

Zura eta Ura proiektu fotografiko-literarioa da, eta gure arrantza-portuek eraikuntzan zura material sintetikoekin ordezkatzearen ondorioz izan duten nortasun-galerari buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu. **ZURA ETA URA** proiektu honek, gainera, Bizkaiko Erriberako azken arotzak ere omendu nahi ditu.

Ontzien eraikuntzan, zuraren ordez beste material batzuk erabiltzearen ondorio nagusiak bi dira: **kolorea eta nortasuna galtzea, eta ibaiertzeko arotzeriaren sektorea desagertzea**.

Portuetako polikromia desagertzearen ondorioz, arrantza-portuek berezkoak zituzten ikusmen-aberastasuna eta berezitasuna murriztu egin dira; izan ere, leku bereizgarriak eta gomutagarriak dira munduko hainbat lekutan. Euskadiko arrantza-portuetan, urdina, gorria eta berdea izan dira historikoki kolore nagusiak. Koloreen konbinazio hori, nolabait, bizitza ulertzeko modu baten isla da, denboran zehar sendotuz joan dena nortasun-adierazpen izan arte, eta, hain zuzen ere, identitate horren galera islatu nahi du **ZURA ETA URAk**.

Itsasontziak eraikitzeko joera-aldeketa horren beste ondorioetako bat da erriberako arotzeria, artisau-ontziola txikiak, eta zurezko ontzien eraikuntza-, konponketa- eta mantentze-lanekin lotutako industria osoa desagertuz doala, apurka-apurka.

Proiektuak erakusketa ibiltari bat eta argitalpen bat ditu, eta gaur egin da horien bien aurkezpena. Konrado Mugertzak zuzendu du, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Laboral Kutxak eta Baskegurrek finantzatuta, eta Itsasmuseuren eta Donostiako Aquariumaren elkarlanari esker, produkzioari dagokionez.

Erakusketa hainbat argazkik osatzen dute, artistikoak eta dokumentalak, eta egurrezko, burdinazko eta harrizko ehunduren kolorea irudikatzen dute. Argazki horiek guztiak Konrado Mugertzak, artista eta erakusketa ugaritako komisarioak, egin ditu. Saiakera labur batzuk eta ibilbide handiko egileen literatura-testuak ere aurki ditzakegu, hala nola Leire Bilbao, Unai Elorriaga, Itxaro Borda, Kirmen Uribe, Anjel Lertxundi, Arantxa Urretabizkaia, Miren Agur Meabe eta Jokin de Pedrorenak, bai eta Jesús Mari Lazkano artista plastikoarenak, Humberto Astibia irakaslearenak eta Felipe Murelaga Lekeitioko erriberako arotz eta irakaslearenak ere.

Bestalde, erakusketan ikusgai dauden irudi eta testu guztiak biltzen ditu argitalpenak. Liburuan, testu nagusiak euskaraz daude garatuta, eta, ondoren, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko itzulpenak ageri dira.

Inauguración proyecto fotográfico-literario

ZURA ETA URA

- **Un proyecto que aúna arte, literatura, tradición e identidad.**
- **Una reflexión artística coral sobre la transformación del paisaje de los puertos y sus consecuencias.**

El proyecto **ZURA ETA URA**, un proyecto fotográfico-literario que invita a reflexionar sobre la pérdida de identidad que han experimentado nuestros puertos de pesca como consecuencia de la sustitución de la madera por materiales sintéticos en la construcción de embarcaciones. Además, **ZURA ETA URA** también quiere rendir homenaje a los últimos carpinteros de ribera de Bizkaia.

Dos son las principales consecuencias de la sustitución de la madera por otros materiales en la construcción de embarcaciones: la **pérdida de color e identidad** y la **desaparición del sector de la carpintería de ribera**.

La desaparición de la policromía de los puertos está reduciendo la riqueza visual y la singularidad de los puertos pesqueros, lugares tan característicos y evocadores en distintos lugares del mundo. En los puertos pesqueros de Euskadi el azul, el rojo y el verde han sido los colores dominantes históricamente, una combinación de colores que es, en alguna medida, reflejo de una manera de entender la vida que se ha ido consolidando a lo largo del tiempo hasta ser una expresión de identidad y es precisamente la pérdida de esta identidad la que quiere reflejar **ZURA ETA URA**.

Otra de las consecuencias de este cambio de tendencia en la construcción de embarcaciones, es la paulatina desaparición de la carpintería de ribera, los pequeños astilleros artesanales y toda una industria vinculada a la construcción, la reparación y el mantenimiento de las embarcaciones de madera.

El proyecto consta de una exposición itinerante y una publicación, que también se ha presentado hoy. Ha sido dirigido por Konrado Mugertza, financiado por la Diputación Foral de Bizkaia, la Diputación Foral de Gipuzkoa, Laboral Kutxa y Baskegur y coproducido por Itsasmuseum y el Aquarium de Donostia.


La exposición está compuesta por una serie de fotografías, de carácter artístico y documental, que representan el color en texturas de madera, hierro y piedra, todas ellas obra de Konrado Mugertza, artista y comisario de numerosas exposiciones, una selección de breves ensayos y textos literarios de autores y autoras de larga trayectoria como Leire Bilbao, Unai Elorriaga, Itxaro Borda, Kirmen Uribe, Anjel Lertxundi, Arantxa Urretabizkaia, Miren Agur Meabe y Jokin de Pedro, además del artista plástico Jesus Mari Lazkano, el profesor Humberto Astibia y Felipe Murelaga, carpintero de ribera de Lekeitio.

Por su parte, la publicación recoge todas las imágenes y los textos expuestos en la muestra. En el libro, los textos centrales están desarrollados en euskera, figurando a continuación sus traducciones al castellano, el francés y el inglés.





Ç







Lekua / Lugar

Donostiako Aquariumeko Sala T / Sala T del Aquarium de San Sebastián

Datak / Fechas

Urtarrilak 21-Apirilak 24 / 21 de Enero-24 de Abril

Ordutegia / Horario

Aquariumeko ordutegia / Horario del Aquarium